Milaka pertsonak bidegorria eskatzeko alkateari bidali zioten postala.



19.



18.



20.



18.

## Quinientas personas piden el carril-bici de La Concha con una marcha ciclista

«El Ayuntamiento apoya el proyecto pero lo pospone por el vial Amara-Aiete-Ibaeta»

ISABEL SALABERRIA  
Dy. SAN SEBASTIÁN

*Casi medio millar de personas con sus respectivas bicicletas se acercaron ayer hasta los jardines de Alderdi Eder para pedir que se acelere la realización de las obras de un carril-bici que dinamique el centro de la ciudad con Abgorra con una marcha ciclista.*

«Tenemos que llamar la atención al ayuntamiento de San Sebastián para que acelere las obras del bidegorri de La Concha porque mucha gente nos trasladamos diariamente por esa zona en bici», comentó Añeta, uno de los exbirindularis presentes en la concentración.

Dentro de los actos programados dentro de Bidegorri Konpainan Kampainan, jóvenes, adultos y familias al completo se



Una vez realizada la cadens, los birindularis se dirigieron hasta el barrio de Antiguoa. A. RUIZ

21.

### → Merkatarien eta beste sektore ekonomiko zein politikoen aurkaritza sendoa

Zirkulazio-eskema berriaren gaineko eztabaidan eta oinezkoen ardatzen proposamenetan zehar gertatu zen bezala, Kontxako proiektuak merkatarien erakundeen aurkaritza jaso zuen, Merkataritza Federazioa buruan, ez baitzioten euren errefusa adierazteri utzi bidegorria sortu eta honen arrakasta egiaztatu zuten arte; izan ere, berriz ere frogatu zen bidegorriak ez zituela arazo osagarriak eragiten, aitzitik, bizi-kalitatearen eta herritarren desplazatzeko aukeren hobekuntza ekartzen zuela.

Sektore horien protestaren babesean eta indarreko aurkaritza politikoaren eredupean, hamarkada horretan zehar udalean ordezkariak izan zituzten hainbat alderdi politikok proiektua atzera bota edo zapuztu zuten ere, irudikatzen zituen ideiekiko hurbiltasun handiagoa edo txikiagoa kontuan hartu gabe.

- «Seguimos pensando que quitar un carril en La Concha es una aberración. Va contra los ciudadanos».

22.

### → Hautabiderik ematen ez duen proposamena

Eztabaida sozial eta politiko horretan, oposizioak erabilitako tresna bat kontra-hautabideen proposamena izan zen. Horiek guztiek bizikleta bidezko konexio bat sortzeko beharra onartzen zuten, baina motordun ibilgailuei eskainitako espazioa murriztea ukatzen zuten eta, oro har, espazio hori zabaltzen edo finkatzen zuten, hiriaren mugikortasun ereduari dagokionez, jatorrizko proiektuak eraldatzeko zuen ahalmenari eragin-kortasuna kenduz.

Honako hauek izan ziren hiru proposamen nagusiak: hondartza gainean hegala bat sortzea, Mirakontxa atzetik bidegorri bat egitea eta uneko lau erriak lurperatzeko tunel bat sortzea.

COMINGA | DECOUPLAGE CE 000

SAN SEBASTIAN | MAY 19 |

## Incertidumbres sobre La Concha

La Plataforma Ciudadana ha presentado el presupuesto del soterramiento de los viales, 1.831 millones

23.



21.

1996. Kontxako bidegorria aldarrikatzeko martxa ugarietako bat.

22.

Merkataritza Federazioaren iritzia 1999an.

23.

Kontxako bidegorriaren aurreko proiektu alternatiboaren irudikapena prentsan argitaratua (2000).

### → Irizpide teknikoak (eta atzetik dituzten ideiak)

Kontxako proiektuak argi erakusten du teknika ideiez eta irizpide subjektiboz zeharkatuta dagoela, eta horiek sarri ezkutatzen direla delako objektibotasunaren mozorropean. Baina begirada bakoitzak errealitatearen alderdi jakinak ikertzen ditu edo informazio erabilgarriaren irakurketa ezberdina egiten du.


## Kalapie presenta un proyecto para la ejecución de un bidegorri entre Ibaeta y el centro de la ciudad

*Una de las alternativas restringe de forma drástica el tráfico en La Concha*

**I. U.**  
DONOSTIA. La asociación de ciclistas urbanos Kalapie presentó ayer a los grupos municipales un proyecto para la construcción de un bidegorri entre Ibaeta y el centro de Donostia. La propuesta, que incluye planes y diferentes soluciones viarias, es muy intrincada y sólo carece de un presupuesto económico.

Kalapie ha elaborado el proyecto por la incompatibilidad municipal ante esta reivindicación, que data de hace ya años, y que persigue comunicar el centro de la ciudad y la vega de Ibaeta, uno de los ejes de crecimiento urbanístico de la ciudad.

Los ciclistas urbanos constatan que el incremento de donostiarras que utilizan la bici y la falta de medidas que eviten la velocidad excesiva e ilegal con la que circulan la mayoría de los vehículos por el vial de La Concha están originando una situación de riesgo que se va haciendo cada vez más grave e inasumible.



Fotomontaje del carril-bici por el vial de La Concha

24.

Herritarren arteko eztabaidaz bestalde, Kontxako konexioak eztabaida tekniko gogorra piztu zuen; eztabaida bat non, beti gertatzen den bezala, arazoaren formulazioa konponbidearen gakoa baitzen. Galdera bat honako hau izan liteke: Kontxako bidetik errei bat edo bi kendu daitezke trafikoko pilaketa larriagotu gabe? Baina bazeuden beste galdera egoki asko ere: Kontxan hainbeste trafikoko onartu daitezke?, hemen ere, beste hainbeste tokitan bezala, trafikoa eta gidariak egokituko al dira, erreak murriztean buxadurek gora ez egiteko moduan?

Kontxako bidegorriaren historiaren amaierak erakutsi zuen hemen ere trafikoa bideen edukierara egokitzen dela, bide batez, Kalapie bezala, motordun zirkulazioko lau erreietatik bat kentzeak eta txirringidariei emateak azken kolapsorik eragingo ez zuela esaten zutenei arrazoia emanez. Operazio honen ondorioz, gidariei zenbait barne desplazamendu autoz egiteko asmoa kendu zitzaie, beste hainbesteren ibilbidea aldatu zuten eta, batik bat, bizikleta erabiltzen zuten pertsonen kopurua biderkatzeko gaitasuna zuen bidegorri sare baten irudia sortu zen. Izan ere, trafikoko pilaketari aurre egiteko modu bakarra ez da zirkulazioa erraztea, baizik eta mugak proposatzea eta muga horiekin bat datozen erregulazio eta neurriak ezartzea.

24.

Kontxa pasealekurako Kalapieren proposamenen isla prentsan.

## Hamar urteko borroka baten gertaera gogoangarriak.

Erdialdeko eta Antiguu auzoko bizikleta bideen arteko konexioa.

→ Udalak Ibaetan aurreikusi dituen bizikleta bideetarako, KALAPIEK hiriko beste auzoekin ere etorkizuneko konexioa errazten duen diseinu bat proposatzen du.

1991

→ PSE-EEko Odon Elorza alkateak Kontxa pasealekuan bidegorria jartzeko proiektu bat eskatu duela adierazten du. Hiri-antolamendurako Plan Nagusiaren aurrerapenak hiri osorako bizikleta bideen sare bat barne hartzen du eta funtsezko konexio hori txertatzen du.

1993

Antiguu auzoko elkarteak Udalari eskatzen dio, Tolosa hiribidetik abiatuta, Sageseraino iristen den bidegorri bat sortzeko.

→ Odon Elorza alkateak berresten du, Amara-Ibaeta bidea irekitzen dutenean, Kontxa pasealekuan bidegorri bat egongo dela.

1993

→ KALAPIEK eta Antiguu auzoko elkarteak egindako erreklamazioa 1.500 pertsonen sinatu zuten. Honekin batera Antiguu, Ondarreta eta Ibaetako bizilagunei eta unibertsitate-campuseko irakasle zein ikasleei egindako inkesta baten emaitzak jakinarazten dira: galdetutako %95 bidegorriak eraikitzearen alde agertzen dira, eta egun bizikleta erabiltzen ez dutenen %70ek diote bizikleta eskuarki edo, gutxienez, noizbehinka erabiliko luketela errei horiek eraikiko balira. Kontxako bidegorriaren aldeko txirrindulari martxa, non 400 pertsonen parte hartu baitzuten.

1994

→ Azaroan, Udal Batzarrak Hiri-antolamendurako Plan Nagusia behin betiko onartzen du, Kontxako bidegorria barne hartzen duen bizikleta bideen sarearekin, eta habilitazioa planaren indarraldiko lehen laurtekorako (1995-1999) programatzen da.

1995

→ “Bidegorria Kontxan” plataforma sortzen da eta “Donostiako erdialdearen eta Ibaetako ibarraren arteko bizikleta bidezko konexioaren sorreraren aldeko adierazpena” argitaratzen du, Donostiako 75 erakunderen babesarekin. Udaletxearen eta Kontxa pasealekuaren arteko bizikleta katea, non 600 pertsona baino gehiagok parte hartu duten. 5.000 herritar baino gehiagok alkateari postalko bidaltzen dizkiote aurreikusitako bidegorri sareko zati hau lehenbailehen egiteko eskatuz.

1996

KALAPIEK Ibaeta eta erdialdearen arteko bizikleta bidezko konexio proiektu bat prestatzen du. Herri Batasuna eta Ezker Batua udal taldeek proiektuari babesaren ematen diote.



1997

→ Odon Elorzak berriz dio 1998ko aurrekontuek, Kontxatik pasoko trafikoa murrizteko helburua duen Amara-Ibaeta bidea bukatzen denean, uda ondoren bidegorria egiteko zuzkidura ekonomikoa barne hartzen dutela.

1998

→ Patxi Beloqui Trafikoko Ordezkariek berresten du bidegorria urtearen amaieran bideratuko dela.

Amara-Ibaeta bidearen eraikuntza bukatzen da. KALAPIEK alkateari eskatzen dio, ahalik eta lasterren, agindutako bidegorri proiektua prestatzeko eta esleitzeko.

1999

→ Trafiko Ordezkaritzak Gobernu Batzordeari Kontxako bidegorria gauzatzeko proiektu bat aurkezten dio, baina ez da onartzen Euskal Herriko Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak partekatzen zuten udal Gobernuako kideek ez diotelako euren babesa ematen. KALAPIEK proiektuaren kontrako arrazoibide bat aurkezten du, non bizikleten espazioa apur bat murriztuz, oinezkoei espazio gehiago esleitzea proposatzen duen.

KALAPIEK, manifestazio berriak antolatzeaz gain, La Perla eta Antiguoko tune-laren arteko zatian bidegorri bat margotzen du galtzada gainean.

EA-EAJ koalizioak, Kontxako hondartzaren gainean hiru metroko altueran hegala bat sortuz, oinezkoen espazioa zabaltzea proposatzen du, lau erreiko galtzada mantentzeko helburuarekin, espazio osagarria bizikletari eskainiz.


Kontxa pasealekuko bidegorriaren entsegua, zirkulazio erreietako bat bizikleten erabilera eksklusiborako ezarriz. KALAPIEK proba horiek kritikatzeko, txirrundularien beharrak motordunen zirkulazioan agertu daitezkeen auto-ilarek baldintzatzeko dituen gero. Emaitzek erakutsi zuten proiektuak ez zuela trafikokoan arazo adierazgarriarik sortzen. Horrez gain, gidarien %44 bidegorria sortzearen eta espaloia zabaltzearen alde zeudela egiaztatu zen.

Udalaren azterketa teknikoek adierazten dute, Amara-Ibaeta bidea martxan jarri ondoren, Kontxako bideko errei bat edo bi kentzeak ez zuela Kontxan trafiko pilaketa arazorik eragingo.

2000

→ Mugikortasun Aholku Kontseiluak, gehiengo handiz, “Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Hiritar Ituna” onartzen du, non haxe adierazten den: “ingurumena gehien errespetatzen duten garraio-bideei (bereziki, oinez, bizikletaz eta garraio publikoan egindako desplazamenduak), emango diegu lehentasuna”. (...) “Era berean, bizikletaren erabilera sustatzeko neurriak hartuko dira (...) Kontxan bidegorri bat sortzeak ekartzen duen apustu handia azpimarratuz”.

Udalak Hiri Mugikortasunean Bizikleta Indartzeko Plana prestatzea agintzen du, non Bidegorri Sareak Kontxako konexioa barne hartzen duen eta planaren garapenerako nahitaezko zatia jotzen duen.



25.  
Bizikleta Indartzeko  
Planean (2000)  
proposatu zen bidegorri  
sareko Kontxako  
konexioa.

25

→ Plataforma herritar batek Kontxako motordunen zirkulazioa lurperatzea proposatzen du 11 milioi euroko aurrekontu aurreikuspenarekin. KALAPIEK proposamen horri aurre egiten dio erdialdean trafiko pilaketa are gehiago larriagotuko lukeela uste duelako.

Teknikari eta politikarien goi-bilera bat ospatzen da bidegorriaren aurreproiektuaren eta honek hirian izan ditzakeen ondorioen gainean eztabaidatzeko.

Mugikortasunaren Aholku Kontseiluak Kontxako bidegorriaren aurreproiektua aztertzen du. Real Automóvil Club Vasco Navarro erakundea, auzo elkarteak, Unibertsitatea, garraio enpresak eta Ezgaitu Fisikoen Koordinatzailea, besteak beste, honen alde agertzen dira.

KALAPIEK, txirringulari martxa jendetsuaren bezperan, Kontxako bidegorriaren aldeko adierazpen bat aurkezten du, arkitekturaren, komunikabideen, kulturen, zientziaren, kirolaren eta Unibertsitatearen eremutik datozen 35 pertsona ospetsu baino gehiagoren babesarekin.

“Bidegorria Kontxa pasealekuan?” galdera egiten duen Diario Vasco egunkariko inkesta batek honako emaitza hauek ematen ditu: Bai: %76,3; Ez: %23,6; Botoak guztira: 609.

Azkenean, Udalak proiektua onartu zuen PSE-EEren babes bakarrarekin. PP eta EHk bidegorriaren alde egin zuten, baina motordun ibilgailuentzako espazioraren mugaketa ukatu zuten.

→ Udalak Kontxako bidegorriaren eraikuntza lanak 716.753 euroko zenbatekoagatik esleitu zituen, eta deialdia uztailan egin zen ospakizun ofizialik gabe.

2001

2002

**Kontxa****Goian:**

Motordun zirkulaziorako lau errei,  
bidegorriaren inaugurazioa baino lehen.

**Behean:**


Motordun zirkulaziorako hiru errei  
eta noranzko biko bizikleta bide bat  
2002an.





## 6. Udalaren mugetatik haratago pedalei eragiten.

Kontxako bizikleta bidezko konexioak ez zituen bizikletaren aukerak zabaltzeko Kalapieren beste jarduera ugari galarazi, lehenik, hiri osoaren eremuan, eta geroago, Gipuzkoako lurralde osoan. Horretarako, 1998an, elkarteak LehendaBizi proiektua abian jarri zuen, probintzia osoan hirigune ezberdinak elkartzeko bizikleta bideen sare bat garatzeko helburuarekin, Gipuzkoan bizikletaren gaineko politika integral bat ezartzeko lorbidea izan zitekeena.



Beste 65 kolektibok (erakunde hiritarrak, udalak, eskualdearen garapenerako agentziak, erakunde enpresarialak, eta abar) egin zuten proiektuaren alde, 2000. urtean Gipuzkoako Batzar Nagusien onespena jaso zuen, eta horiek Foru Aldundiko Ingurumen Sailari ideia garatzeko agindua eman zioten. Honen ondorioz, 2002. urtean, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Plan bat prestatu zen. Planak aurreikusitako sareak Gipuzkoako ibarrak zeharkatzen eta konektatzen zituen, hirigune nagusien, industrialdeen eta gune natural garrantzitsuen arteko ibilbideak ahalbidetuz.



27.  
ConBici eta  
ECFren logoak.

Hamabost urte beranduago, Gipuzkoako bizikleta bideen sarea hazten ari den errealitate bat da dagoeneko; 8 urterako programazio ekonomiko bat jasotzen duen eta hirigintza- eta lurraldeplanak konprometitzen dituen lege mailako Plan bat du, Batzar Nagusietan aho batez onarturikoa. Egun, bere luzeraren %40 eraikita dago, eta urtean zehar 3,3 milioi desplazamentutik gora errazten ditu.

Aipatu beharrekoa da nola txirrindularien eskakizunek ezkutatu-tako beste eskaera bat mahaigaineratu duten: hiriguneetatik kanpo edo hiriguneen artean ibiltzea. Oinezkoen bideen trazadura partekatu ohi duten bizikleta bideen foru sareko zatiak eraiki diren neurrian, egiaztatu da zati horiek erabiltzen dituzten pertsonen hiru laurdenak oinez ibiltzen direla, eta honek erakusten du desplazamendu modu aktiboen arteko elkartasunerako aukerak daudela.

Bizikletak ez ditu muga administratiboak ezagutzen Gipuzkoatik haratago; Kalapie, beste txirrindularien elkarte hiritarrek batera (Bilboko Biziz Bizi eta Gasteizko Bizikleteroak), pizgarri bat izan da bizikleta agenda politikoan sartzeko. Talde hauek Eusko Legebiltzarrean agertu ziren eta horri esker, 2006ko urrian, eskaera parlamentario bat onartu zen Eusko Jaurlaritzak bizikleta garraiobidetzat hartzen duen Bizikletaren Euskal Estrategia garatzeko eta Autonomia Erkidegoko Bizikleta Bideen Plan Zuzentzailea prestatzeko. 2013an antzeko erreklamazio batek autonomia administrazioak ere bizikletaren gaineko politika integrala garatu behar duela mahaigaineratu zuen berriz ere.

Udal mugak gainezkatzen dituzten txirrindularien mugimendua- ren sareetako parte-hartzea ere hedatu egin zen. Bizikleta Donostiatik haratago zabaltzeko dinamika berak Oarsoaldean eta Bidasoaldean Kalapieren tokiko taldeen sorrera eragin zuen; eta antzeko erakundeekin ohiko harremana ezartzeko bidea eman du Oñatin (Txirrinka) eta Arrasaten (Lurrats).

Euskal Herritik kanpo, 1992. urtean, Kalapiék ConBiciren sorreran parte hartu zuen, bizikletaren defentsarako talde espainiar eta portugaldarrak elkartzen dituen erakundea. Era berean, Europako Txirringularien Federazioarekin (ECF) harreman estua mantentzen du, bizikleta mugikortasuna sustatzeko jardura etengabearekin. Kontinente osoko bizikleta bideen EuroVelo sarea ECFren ekimena da, eta Gipuzkoarekin elkartuta dago baita ere Bidasoan Frantziako muga zeharkatzen duen ibilbide baten bidez.

28.  
Bizikleta bideen EuroVelo sarea garapen-bidean.



## 7. Sareak ehotzen, hobekuntza partzial bat orokor bihurtzeko.

Lehen ere esan den bezala, jatorritik Kalapieren helburua aliantzak ehotzea eta beste erakunde sozialekin proiektu komunak bultzatzea izan da. Mota honetako elkartasunak nola zabaldu daitezkeen ikusteko, nahikoa da gogora ekartzea hogeita hamabost urte hauetan beste erakunde hiritarrekin egindako zenbait ekimen, aipatu Kontxako kanpainari dagozkionez bestalde.

### → Pasealeku Berriko erreforma.

Joan den mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren erdian, Udalak pasealekuaren erreformari ekin zion eta Kalapiek, Gipuzkoako Ezgaitu Fisikoen Federazio Koordinatzailearen lankidetzarekin, pertsona guztien irisgarritasunari eta erosotasunari eragiten zioten hainbat hobekuntza proposatu zituen.

### → Donostia-Herrera-Orereta konexioa

Kontxako bizikleta bidea lortu ondoren, Kalapiek ahalegin handiak egin zituen hiri inguruko auzoekin eta udalerrri mugakideekin bizikleta bidezko konexioa ahalbidetzeko. Bereziki, Donostia Herrera eta Oreretarekin elkartzeko kanpaina azpimarratu beharra dago, ibilbide horretan zehar oinarritutako era guztietako elkarteen lankidetzarekin egin baitzen.

29.  
Pasaiaiko konexioa aldarrikatzeko ekintza baten argazkiak.

30.  
Tokiko eskala bizikletari dagozkion hobekuntzetan. Espazio publikoa berreskuratzea eta trafikoa baretzea Egia auzoan.



29.



29.

→ **Gizarte-tren baten aldeko Sarean parte hartzea**

Abiadura handiko trenei lehentasuna ematen dien ereduaren aurrean hautabide bat eskatzen duten erakundeen plataforma. Plataforma osatzen duten erakundeen artean azpimarratzekoak dira, alderdi politikoez gain, sindikatuak, erakunde ekologistak eta kontsumitzaileenak.

→ **Manifestu sindikala, lanera bizikletaz**

2009. urtean Gipuzkoan ordezkarri gehien zituzten erakunde sindikalek prestatu eta sinatu zuten, Kalapiiek bultzatuta: UGT, ELA, CCOO, LAB, ESK eta STEE-EILAS.

→ **Proiektuak Egia eta Martutene auzoetan**

Azken urteotan, Kalapiiek espazio publikoaren erreforma konplexu-enei bultzada eman die. Jadanik, gakoa ez da bakarrik auzoan bizikleta bide bat txertatzeko modua aurkitzea, baizik eta bizikletak nola lagundu dezakeen espazio publikoa berreskuratzen eta trafikoa baretzen (Egia) edo hirigintzaren eta izadiaren arteko lotura berritzen (Urumea ibaia Martutenen). Eraitza Kalapien ikuspegi sektoriala aberasten duten auzo elkarten proposamen bateratuak dira.



---

Aurreko ekimen sorta gizarte-mugimendu sektorial edo espezializatuen artean ohikoa den fenomeno baten eredu da: errealtatearen alderdi partzial bat lantzean askotan begirada zabalagoa izatera behartzen duten sustrai sakonak agertzen dira; eta begirada hori gabe hasierako erreklamazioak hutsaltzen dira.

Hortaz, bizikleten iragate eroso eta segurua ahalbidetzeko pasealeku baten diseinu arazoa dibertsitate funtzionala duten pertsonen hirian dituzten eskubideen gaineko hausnarketa bihurtzen da eta, horren ondorioz, bizikletaren erreklamazioa funtsezkotzat jotzen ez duten lagunen onarpen bihurtzen da.

Hiriguneen arteko bizikleta bidezko konexio eroso eta seguru baten erreklamazioa, halaber, hiri-aglomerazioak giltzatzeko moduren gaineko hausnarketa egiteko aukera bihurtzen da, komunikazio eta garraio azpiegiturek sortutako oztopo paradoxikoak saihestuz. Auzo elkarrekin eta era guztietako elkarrekin, bestetik, bat egiten dute aukera honekin, eta hiri-aglomerazioan eurek duten lekuaren pertzepzioa aldatzen dute baita ere.

Erakunde sindikalekin garatutako jardueraren ereduak, bai gizarte-beharretara egokitutako tren baten erreklamazioan, bai lanposturako desplazamenduetan mugikortasun eredu berri baten erreklamazioan, bizikletaren gaineko politiketan mikro eskala eta makro eskalaren eskakizuna erakusten dute ere.

Azkenik, Egiaren kasua, bizikleta oinarri hartuz trafikoa baretzen eta espazio publikoa hobetzen laguntzen duen proposamena, edo Martuteneren kasua, hiriaren eta Urumea ibaiaren arteko harremanaren gaineko eztabaida irekitzen duena, partikularretik globalera, eta alderantziz, igaroarazten duen mekanismo horren adibide onak dira ere.

---

## 8. Herritarrekin bat egitean aktibismoa dibertigarria izan daiteke.

Bizikletaren defentsarako elkarte gehienek ezaugarri bereizgarri bat dute: kontu antolatzaile eta instituzionalen alderdi “aspergarria” txangoen edo bizikletaren erabileraren alderdi ludikoarekin konbinatu ohi dituztela. Beharbada horregatik iraun dezake hainbeste mugimendu hiritar batek: dibertimendua ez da irmotasunarekin eta zehaztasunarekin bateraezina erreklamatzeko eta dibulgatzeko orduan.

Jarduera aukerek bizikleta ibilgailu gisa bereizten duten alderdi guztiak jorratzen dituzte: txango eta ibilaldiak, ibilgailua erabiltzen edo konpontzen ikasteko lantegiak, bigarren eskuko bizikleten azokak (Bizitruk), ikastetxeetan egindako hitzaldiak eta bizikleten azpiegiturarekin edo lapurreten prebentzioarekin erlazionatutako kanpainak.



32.



31.

Zentzu honetan, hirian eta herritarren, Kalapieren eta Udalaren arteko harremanean bizikleta berreskuratzeko tresna nagusietako bat Bizikletaren Behatokia izan da, herritarren eta administrazioaren arteko bateratasunerako ahalegin berria, hain zuzen, iritzi publikoaren eta erabaki tekniko zein politikoen artean zubi izateko helburuarekin sortua. Behatokia 2000. urteko Bizikleta Indartzeko Planean aurkeztu zen eta 2005ean martxan jarri zen. Bizikletaren erabileraren eta azpiegituren egoeraren gaineko txosten bat prestatzen du urtero eta, batez ere, bizikleta mugikortasunari dagokiolarik herritarren ohar eta kexak jasotzen eta helarazten ditu.

31.

Bizitruk baten argazkiak.

32.

Donostiako Bizikletaren Behatokia, herritarren eta administrazioaren arteko zubia.



Beste edozein gizarte-erakunderekin gertatzen den bezala, Kalapiek bere eskueran dauden komunikabide guztiak erabiltzen ditu, bai bereak bai besterenak. Egun, Kalapie elkarrizketa eta prentsa-oharren bidez erlazionatu ohi da egunkari, irrati eta telebistekin. Eta komunikabide-kanal hauetara gizarte-sare eta interneterako afixen, buletin, bideo eta materialen edizio aukera handia gehitzen da, ahaztu gabe elkarteak ikusgarritasun gehiago duela 2013. urtean Gros auzoan kalean lokal bat ireki zuenetik.

33.  
Elkartea herritarrei irekitzen. Kalapieren lokala kalean.

34.  
Gipuzkoan zikloturismo ibilbideak zabaltzeko Kalapieren argitalpena.

Zorionez, hogeita bost urte hauetan Kalapiek landatu dituen haziak elkarteak babestu dituen bizikletaren sustapenerako herritar zein administrazioen beste ekimenen alboan erne dira, esaterako, masa kritikoa, modarekin lotutako jarduerak eta bizikletak protagonismoa duen bestelako ekintza hiritarrak.

Azkenik, ez da ahaztu behar Kalapiek, Olatu Talka delako Kultura Jaialdiaren barruan, azken urteotan antolatu diren Ziklobiak proposatu zituela eta hauek gauzatzen lagundu duela. Ziklobietan, motordunen zirkulazioaren bide jakin batzuk mozten dira oinez, pedalei eragiten edo patinatzatzen doazen pertsonentzat; hiria modu atsegin eta dibertigarriagoan ikusteko eta desplazamendu modu gehiago daudela egiaztatzeko aukera ematen duen jarduera, alegia.



33.



34.



# ZIKLOBIA

ibaeta-añorga-zubieta

2019

MAIATZAK 26 DE MAYO  
10:00 - 16:00

**Kalapie** **ILATU TALKA ROMPEOLAS**

38.

7 KM

35.

35. Kalapiep bizikleten artean banatutako liburuxka, lapurretak saihesteko gomendioekin.

36. Bizikleta erabiltzeko modu eta sentsazio berriak proposatzen.

37. Bizikletaren oinarritzko mekanika ikasteko lantegiak.

38. 2014ko Ziklobiaren irudia.



36.



35.




37.

## 9. Bizikletaren normalizazioa, egindako lanagatik jasotako esker ona.


Pertsona izorratzaile, hippy edo martetar horiek, zenbait sektorek esaten zieten bezala, Donostian bizikleta posible zela uste eta nahi zuten eta, azkenean, Udal beraren esker ona jaso zuten, 2008. urtean Udalak Kalapieri hiritar merezimenduaren domina entregatu baitzion. Baina Kalapie bezalako elkarte batek jaso dezakeen esker onena hiria orain begiratzea eta lehen nolakoa zen gogoratzea da; egun bizikleta desplazatzeko modu normalizatu bat dela ikustea, alegia.

Hori bera da mende honetan zehar argitaratu diren bizikletaren erabilera zifren eboluzioak (Udalaren tokietan kontabilizatu diren bizikleta bidezko desplazamendu kopurua lauokiztu egin da) eta iritzi inkestek egiaztatzen dutena. Hori guztia, hirian oinezko, bizikleta eta garraio kolektibo bidezko desplazamenduen nagusitasunarekin, garraiobide iraunkorrakoak sendotu dituen prozesu batean.

### — DONOSTIAN EGUNEKO TXIRRINDULARI KOPURUAREN EBOLUZIOA.



— BIDAIEN BANAKETA GARRAIOBIDE EZBERDINEN ARTEAN DONOSTIAN (2011).



**Iturria:**  
Eusko Jaurlaritzaren  
"Estudio de Movilidad  
de la Comunidad  
Autónoma Vasca 2011"  
azterketaren datuak  
oinarri hartuta egileak  
prestatutako informazioa.

Halaber, garrantzitsua da jakitea bizikleta populazio osora edo talde jakinetara bakarrik iritsi al den. Zentzu honetan, normalizazioaren froga garbia emakumezkoen presentzia geroz eta handiagoa da; udalaren kalkuluen arabera, bizikleta bidezko trafikoaren %43 emakumeek osatzen dute, eta horrek esan nahi du, hain zuzen, bizikleten zirkulazio espazioa geroz eta barnertzaileagoa dela.

Normaltasunaren beste adierazgarri on bat hirian pedalei eragiten ibili ohi diren 20 urtetik beherako pertsonen ordezkaritza handi samarra da, hirian bizikleta bidezko desplazamendu gehien egiten dituen 20 eta 40 urte arteko pertsonen taldea den arren.

Hala ere, garraio bideen erabileran aldaketa hau bizi ahal izateko, hiriko paisaian, espazio publikoaren ezaugarriek dagokienez, aldi bereko bilakaera gertatu behar izan da baita ere. Kalapie sortu zenean autoak kalean zuen erabateko nagusitasuna galtzen joan da oinezko espazioa berreskuratzeko eta bizikleta bideak sortzeko esku-hartzeekin.



39.



40.



39.

Oinezkoen lehenetasuneko ardatzaren aurreko eta geroko irudiak.


40.

Bulebarraren aurreko eta geroko irudiak.

Donostiaren kasuan, bizikletaren arrakasta bizikleta bideen sarearen eta bizikletentzako aparkalekuen sarearen konfigurazioarekin estuki erlazionatuta dago. Galtzadatik kanpo bizikletaz zirkulatzeko aukerei esker, pertsona asko garraiobide hau probatzera animatu dira.

Beste lekuetan gertatu den bezala, bizikleta erabiltzeko eskaera estalia, mende honetan zehar, ondorengo grafikoan islatzen den bidegorri sarearen edo bizikleta bideen eboluzioaren erritmoan agerian jarri da egiaz.

— BIDEGORRI SAREAREN BILAKAERA.




Bultzada beraren beste alderdi bat bizikletentzako aparkalekuen sarearen hazkunde da. Donostiako kaleetan aparkatuta dauden eta, neurri handian, gaua bertan igarotzen duten milaka bizikletak mugikortasun ohitura berrien isla dira hiriko paisaian.

Baina gehien aldatu den paisaia kulturarekin, mentalitatearekin zerikusia duena da; Kalapiaren hogeita bost urteetan bizikletaren pertzepzioa alderantzikatu da, ohitura arraro edo susmagarri bat izatetik desplazatzeko modu normal bat izatera pasa da, gizarte-maila, desplazatzeko arrazoa, adina edo sexua kontuan hartu gabe.



Bizikleta Donostia 2016ko Europako Kulturaren Hiriburua ospakizunaren ibilgailu ofizial izatea egindako bidearen zantzu argia da, sari honekin bizikleta bultzatzen den aldi berean ekitaldiaren ingurumen-erantzukizuna bermatzen delako.

— BIZIKLETENTZAKO APARKALEKU-PLAZA KOPURUAREN EBOLUZIOA DONOSTIAKO KALEETAN



## 10. Hogeita bost urte ez dira ezer, egiteko eta aldatzeko gelditzen dena.

Bada, atzera begira esan daiteke Kalapieren jatorrizko zenbait helburu bete direla, baina beste batzuk lehenago bezain urrun gelditzen direla. Bereziki, mugikortasun ereduaren aldaketa sakona; bizikleta bultzatzearen, eta, azkenean, normalizatzearen alde igarotako hogeita bost urte hauetan, aldi berean, motorrarekiko eta autoarekiko mendekotasunak gora egin baitu.

Egia da, mugikortasunaren gaineko inkestek aditzera ematen duten bezala, hirian eta Gipuzkoako beste herrietan paisaia aldatu egin dela, bizikletak eguneko bidaia zifra handia lortu baitu dagoeneko. Hau egia izan arren, bizikletaren zifrak oraindik oso urrun daude Europako beste herrialdeen zifretatik.

Azpiegiturak bukatu gabe daude baita ere, eta existitzen direnak hobetu behar dira oraindik, adibidez, oinezkoekin sortzen diren gatazkak saihesteko. Edo, txirrindulari eta motordunen arteko bereizketarik ez dagoen tokietan, motordun ibilgailuekin bizikidetzatza errazteko.

Bizikleta garraio kolektiboekin konbinatzeko erraztasunei dagoenikenez, txirrindulariak desplazatzeko dituen aukerak handitzeko eta garraio publikoa indartzeko, oraindik hobekuntza asko egin behar dira.

Oraindik gelditzen den zereginetako bat urtarokotasuna, hau da, epe hotz, haizetsu edo euritsuetan bizikletaren erabileraren neurriz gaineko murrizketa, txikitzea da. Europako iparraldeko eta erdialdeko herrialdeek erakusten duten bezala, ekipamendu egokiarekin, bizikleta “eguraldi txarreko” egunetan erabili daiteke baita ere.

Bizikletak dituen hainbat oztopo mentalitatearekin eta heziketarekin lotura dutenez, etorkizuneko ahalegin handiak mugikortasunaren eremuko aldaketa kulturalarekin du zerikusia; bizikletaren espazioa zabaltzeko, hurrengo urteetan zehar, bizikleta funtsezko pieza gisa txertatzen duen mugikortasun kultura berri bat sustatzeko etengabe arreta mantentzera behartuta gaude eta.

Bizikletari, nolanahi ere, ahalegin etengabea eskaini behar zaio. Urtero haur eta gazte-saldo berriak txirrindularien zirkulazioan sartzen dira; bidegorrietan eta, bide hauek iritsi ezin diren tokietan, beste ibilgailuekin partekatu behar dituzten espazioetan ibiltzen ikasten dute. Automobilizazioaren fase nabarmenenean zehar galdutako belaunaldietako adineko pertsona asko gelditzen dira ere, bizikletan ibiltzeko trebetasuna oraindik ez duten baina bizikleta erabiltzen hasteko gogoia duten pertsonak, alegia.

Azken batean, Kalapiiek pedalei eragiten jarraitu beharko du hiria biztanleentzat berreskuratzen, bizikleta mugikortasunaren aukerak zabaltzen eta bizikletari dagokionez oraindik existitzen diren aurreiritziak deuseztatzen laguntzeko. Hogeita bost urte betetzeak konfiantza ematen du eta, aldi berean, erronka eta erantzukizun berriak planteatzen ditu.







**Esker ona:**

Kalapie osatzen duten pertsona guztiei eta,  
Kalapieko kide ez izanik, dokumentu honen prestakuntzan  
parte hartu dutenei.

Dokumentu hau [www.kalapie.org](http://www.kalapie.org) webgunean ikusgarri  
dagoen bideogramak osatzen du.



Asociación de Ciclistas Urbanos  
Hiriko Txirrindularien Elkarte  
1989-2014

Iparraquirre 8, 20001 Donostia  
Telefonoa: 943 451 511 Mugikorra: 629 271 481  
kalapie@gmail.com [www.kalapie.org](http://www.kalapie.org)



## Ulia mendia

### ATEGORRIETA-ULIA

### INTXAURRONDO

### Marrutxipi